

Ez da olerkari barri be. «Dirauket»-ek ondo ezagutzen dabelakoan gagoz. Beste olerki-liburu bat be argitaratu dau oraingo onen aurretik. *Maitale Galdua* eukan berak izenburua.

Liburu egokia da *Basoko Loreak* olerki-liburutxo au. Adikortasun gozo eta baketsu baten eztitasuna ikusi leikeala dirudi, olerkietan. Bizitza, Itxaropena, Izadia ta Gizartea... olerkariaren begiekaz ikusten dauz, edertasunagaz maiteminduta dagoan benetako olerkariaren ikusmen zintzoagaz. Kirmentasun onek dakartso J. A. E.-ri egiatzko olerkari mailla bat, eta bide onetatik jarraitzeak eruango dau literatura gaitan berez berez errezak ez diran jomuga aundietara.

Arritzeko ezta izango baiña poztutzekoa bai, kristiñau-euskaldun olerkariak aurkitzea gure gazteen artean. (Ikastea eta kantatzea me-rezi dabena da «Jo-muga» izenburukoa: *Gaztaroa arin joango yatzu. / Azken ordua eltzean, / Esan begie zugaitik: kristau / euskalduna zan benetan.*)

Zoritxar bat zala berarentzako denporea, esan ei-eban bein olerkari batek: Cernuda bera eztaikit ba etzan izan esaera orren aita. Kurutze bakorik ez gara izango iñor mundu onetan, baiña Santurtzitar idazle onek mundu onetako zeregiñ-eginkizunak betetako bidea aurkitu dabela ikusten da, ainbeste lan eta lan egiteko erreztasuna aurkitu daben ezkeroz.

Zorionak, eta urte askotarako euki daigula gure artean gugaz euskaldun barri zintzo au, euskerearen onerako.

N. A.G.



BERNARD D'ECHEPARE. *Linguae Vasconvm Primitiae. El primer libro impreso en euskera (año 1545)*. Reproducción facsímil del único ejemplar, que se conoce de la edición Príncipe, hoy en la Biblioteca Nacional de París. Con una introducción bio-bibliográfica de Nicolás de Alzola Guerediaga y la primera versión castellana, debida a Lino de Aquesolo y Olivares. Edición Separada de «La Gran Enciclopedia Vasca». Bilbao, 1966.

«La Gran Enciclopedia Vasca»k, 1933-an J. Urkijok egin zuen eran (RIEV aldizkarian) aldizkaritik apartean liburu bezala argitaratu du euskal lehen liburua den hau, baiña bereziki euskerazkoaren

ondorean bere gaztelerazko itzulpena du. Hirurehun aleko edizio-nea da.

N. de Alzola'ren zazpi orrialdeak letra xeez ditu, sarrera bezala, «Notas bio-bibliográficas sobre Bernard d'Echepare» izenez. D'Echepareren berriak, liburuak izan dituen argitalpenak, euskalari eta euskaltzale zenbaiten aburuak, eta liburuari buruz egin diren saio ta aipamen berezienen berriak bibliografia zerrenda luze batean. Txukun egiña, Anai Berriotxoak dakian lez.

9-garrenetik 71-era dator d'Echepare'ren lan osoa orriz-orri, lehen-dabiziko liburu ber-bera bezala. Lehenago Urkijok egin zuen bezala. Lehen edizioea zen bezala.

Eta 73-garrenetik 88-ra, Lino Akesolok itzulpenari egiten dion sarrera eta gaztelerazko itzulpen osoa. Erdera txukun batean da, bere gaztelera zahar itxura ta guzti.

Aldizkaritik aparte egin duten liburu hau oso dotore egiña da. Bibliografoentzat pitxi dotore bat izanen da noski. Urkijorena bera b:riño dotoreago azaltzen baita. Ta gaiñera hura aspaldi agortua zen.

Akesolok bere sarreran dionez, «Saroyada lohitu»ri («Sarioia da lohitu» noski) ez dio arkitzen esan nahi zeatzik. Uste du garaiko esaeraren bat izan zitekeala. Zati hau, gaurko zentzunez, ez da harira ondo lotzen dana. Azkuek bere hiztegian dakar *Saroi* hitzean, toki beretik hartua eta antzerako itzulpenez. Beste zalantza, Akesolok, «verdi», «verdin» izan ditekianarena argi dagola dirudi berak ematen duen iritzi horretan.

D'Echeparek, errenazimentuko idazlea zenez, errealitate gordiñez idazten du, bere mendeko giroan oitura zen bezala. Poeta bezala ez zan txarra, ta beti izango du gure literaturan toki berezia lehen liburua izateaz gaiñera' ere. Bere gaiak, erlijioa, amorosak eta euskeraren alderakoak dira. Oso biziak eta oso bikañak.

Anai Berriotxoak ematen ditu liburuak izan dituen sei argitalpenen berriak, oraingo hau zazpigarrena dela. Ta hirugarren orrialdean zalantzaz dio: «Investigaciones de última hora han permitido sugerir la posibilidad de la existencia de otra edición en el siglo XVI, quizás anterior a la de 1545.» Jose Maria Ugarte'k «Euskal-erriaren Alde»n, 1926-an, 149-garren orrialdean ziona bera, Urkijok ukatuarren, Alzola'k berritzen digun duda hura.

Liburu hau argitara irten ondorean, berri on bat datorkigu mugazandik. Lafitte jaunak, bere aintzin-solas batekin, argitaratu du «Gure Herria»n *L'Art poétique Basque d'Arnaud d'Oyhénart (1665)*. «Gure Herria»k 1967-ko urrian argitaratutako liburuxka bereziak ematen ditu berri hoiek. 13-garren orrialdean, Lafittek argi jartzen du Bordelen 1545-ean izan zuenaren ondorean bigarren edizioe bat

izan zuela Rouen'en, Adrian Morront'en etxean. Ez du urterik jartzen baiña XVI-garren mendean zela uste da. Ta, ez da zalantzan jartzekoa, zeren Oihenart'ek berak bi aldiz aipatzen baitu edizione hori ta gaiñera zeaztasunak ematen ditu esanaz bigarren honek lehenengoak baiño huts geiago dituela. «Gure Herria»tik aparte egin duten ale honen 35 eta 37 orrialdeetan irakurri genezake.

Beraz, Bilbon 1966-an argitaratu duten hau zortzigarren argitalpena dugu, gure lehen liburu honena. Lehenago alemanera eta frantsezera itzulia zen, ta orain lehenengoz jartzen da espaiñolez. Entzuna dugunez, laister izango omen da beste argitalpen bat ere, euskeraz oraingo grafiaz jarria eta frantsez eta espaiñolezko itzulpenekin.

Gure editorialak, badirudi, ez dakitela zer argitara eta batek egi-ten duenak egitera laister datoztela besteak. 1964 eta 1965-a hiztegi urteak izan ziren bezala, oraingoak aintziñako liburu zaharrenak di-rela dirudi. Bestela ere, gure arteko zenbait editorialek literatura bai-ño arkeologia geiago egin izan dute. Aize berriak toki gutxi dute gure giro itsuan.

J. SAN MARTIN.

